

## INFORMAZIO OHARRA

# Nola lagundu Arabako lurralde orekari?

*Landa-ekimeneko esperientziak Gasteizen bilduko dira Eusko Ikaskuntzako antolatutako jardunaldi batean. Izena emateko epea zabalik dago.*

**Gasteiz, 2022ko ekainak 9.** Herrialde baten lurralde-oreka lortzeko, landa-inguruneari eta herri txikiei etorkizuna bermatu behar zaie. Hiru urte daramatza lan horretan Eusko Ikaskuntzak, erakunde, gizarte-eragile, talde eta pertsona inplikatuekin elkarlanean.

Ekainaren 16an, Gasteizen (Oihaneder Euskararen Etxean), Arabako landa-ekimenaren inguruan gizartea gehiago sentsibilizatzeko ekitaldia egingo da, eta, aldi berean, Eusko Ikaskuntzak arlo horretan egiten dituen lanen eta proiektuen berri emango du.

*Lurralde oreka jomugan* izenburua hartuta, arratsaldeko saioa (18:00etatik 19:45era) Ion Muñoak hasiko du (Deustuko Unibertsitatea) herri txikien kontakizunei eta balioei buruzko hitzaldi batekin. Ondoren, Arabako landa-eremuko hiru esperientzia ekintzaile aurkeztuko dira, eta eguneroko aukerak eta zailtasunak zehaztuko dizute bertan. Parte-hartzaileak hauek izango dira: Amaia Gabilondo Jauregi (Garaion), Gartzen Garaio Atxurra (Aiaraldeako Ekintzen Faktoria) eta Aritz Ibañez Ranero (Mendialdea Irratia).

Ekitaldia amaitzeko, Arabako Herri Txikien Akademia sortzeko proiektuaren azalpen laburra egingo du Joseba Bergaretxe Zipitriak (Eusko Ikaskuntza). Mintzaldi guztiak euskaraz izango dira.

Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko interesa duen ororentzat: [www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus) gunean.

NOTA INFORMATIVA

## ¿Cómo favorecer el equilibrio territorial en Álava?

*Experiencias de emprendimiento rural se dan cita en Vitoria-Gasteiz en una jornada organizada por Eusko Ikaskuntza. Abierta ya a la inscripción.*

**Vitoria-Gasteiz, 9 de junio de 2022.** El equilibrio territorial de un país pasa por asegurar un futuro al medio rural y a los pueblos pequeños. En esta labor viene trabajando desde hace tres años Eusko Ikaskuntza en colaboración con instituciones, agentes sociales, colectivos y personas implicadas.

El 16 de junio en Vitoria-Gasteiz (Oihaneder Euskararen Etxea) tendrá lugar un acto con el que se quiere favorecer una mayor sensibilización social en torno al emprendimiento rural en Álava al mismo tiempo que dará a conocer la labor y los proyectos de Eusko Ikaskuntza en este ámbito.

Con el título *Lurralde oreka jomugan. El equilibrio territorial como objetivo*, la jornada se desarrollará en sesión de tarde (de 18 a 19:45 horas) comenzando con una conferencia de Ion Muñoa (Universidad de Deusto) sobre los relatos y valores de los pueblos pequeños. Posteriormente, se presentarán tres experiencias emprendedoras en el ámbito rural alavés, con detalle de las posibilidades y las dificultades que se dan en el día a día. Intervendrán: Amaia Gabilondo Jauregi (Garaion), Gartzen Garaio Atxurra (Aiaraldeako Ekintzen Faktoria) y Aritz Ibañez Ranero (Mendialdea Irratia).

El acto finalizará con una breve exposición del proyecto de creación de una Academia de los Pueblos Pequeños de Álava a cargo de Joseba Bergaretxe Zipitria (Eusko Ikaskuntza). Todas las intervenciones serán en euskera.

Las inscripciones están ya abiertas a toda persona interesada en [www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus).